

Etxeko eginbeharrak **burututa**,
paseatzera joan zen.

Garaiz **burutu** du lana.

Ozta-ozta lortu zuen zeregin
nekagarri hura **burutzea**.



Aurreko esaldietan, hauen
sinonimoa da **burutu**:

bukatu/amaitu,
bete, buru eman

Burutu ez da egin.

Lasterketa bikaina egin du Leire Olaberriak.

#Lasterketa bikaina **burutu** du Leire Olaberriak.

Erresistentziak erasoaldi ugari egin ditu.

#Erresistentziak erasoaldi ugari **burutu** ditu.

Lan hori egiten genuen bitartean (...) / Lan horretan ari ginela (...)

#Lan hori **burutzen** genuen bitartean (...)

Amaitu zentzuaz gainera, beste bi adiera dakartza **Hiztegi Batuak**.

burutu, buru/burutu, burutzen.

1 *da* ad.: *garia burutzen ari da*.

2 *du* ad.: *haur honekin ezin dut burutu* ('ezin naiz moldatu').